

«BARTOLOMÉ ERTZILLA MUSIKA ESKOLA ETA KONTSERBATORIO PROFESIONALA» ADMINISTRAZIO-ERAKUNDE AUTONOMOAK INDARREAN DAUDEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA, ERROLDATZEAGATIKO BEREIZKETA KENDUZ.

«Bartolomé Ertzilla Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEako Gerentziak igorritako memoria ekonomiko-finantzarioan azaldutakoa kontuan hartuta, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Udalak ezin du alde kuantitatiborik ezarri udal-instalazioak erabiltzeagatiko tasa batean, kontuan hartuta erabiltzaileak udalerrian erroldatuta dauden ala ez, uztailaren 20ko 1064/2023 epaiaren bidez (ECLI:ES:TS:2023:3567) Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina gisa xedatutakoaren arabera, erroldatuta egotea ala ez egotea zerbitzu bera emateagatik prezio desberdinaren ezarpena justifikatzeko arrazoizko irizpide objektibo bat ez delako.

- Bai «ideal europarrak», bai musika-irakaskuntzen finantzaketa-ereduari buruz indarrean dagoen araudiak, jasangarritzat ezartzen dute hereneko finantzaketa-eredua, hau da, finantzaketaren ehuneko hogeita hamar eta hogeita hamahiru (33,33) gobernu autonomoei dagokiena, beste ehuneko hogeita hamar eta hogeita hamahiru (33,33) udalei eta azken ehuneko hogeita hamar eta hogeita hamahiru (33,33) ikasleen matrikulei. Eusko Legebiltzarrak berak legez besteko proposamen bidez aho batez onartu zuen aipatutako finantzaketa-eredua.

- Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta Garapen Jasangarriko 2030 Agenda erreferente bihurtu behar dira udalerrietan ezarri eta garatu beharreko zerbitzu publikoak diseinatzekoan. Beraz, erreferentzialtasun hori zerbitzu horiek finantzatzeko proposamenetan islatu behar da eta horretarako funtsezkoa izango da administrazioen arteko aliantzak lortzea, hau da, herritar guztientzat etengabeko ikaskuntzarako aukerak sustatuko dituen hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatuko dituzten estrategia partekatu iraunkorrak eta kohesionatuak inplementatu eta garatu ahal izateko aliantzak.

- «Gobernantza Ona»ren printzipioek zerbitzuen eskaintza arrazionalizatzeko estrategiak ezartzera behartzen gaituzte, eskala-ekonomiak sortu eta horren iraunkortasun-maila ezin hobea lortzeko. Horrek, aldi berean, horiei atxikitako giza baliabideen optimizaziorik eta efizientziarik handiena lortzea, eta, ondorioz, musika-irakaskuntzen kasuan, prestakuntza-maila bakoitzeko ahalik eta ikasle gehien lortzeko estrategiak ezartzera, ezarritako irakasle-ikasle ratioak gainditu gabe, eta bai Udalak bai erakunde autonomoek GJH horiekin eta estrategikotzat jotzen diren planekin bat datozen zeharkako hezkuntza-zerbitzu berriak diseinatzera eta garatzera garamatza.

- Indarrean dagoen araudiak prezio publikoen hobariak aplikatzea sustatu eta ahalbidetzen du, egoera ekonomiko eta sozial ahulenean dauden pertsonen musika-irakaskuntzetara sarbidea bultzatu eta erraztuz eta ondorioz, benetako hezkuntza-eskaintza inklusiboen eta bidezkoen ezarpena bideratuz.

- «Gehien daukaten herritarrek ekarpen handiago egin behar dute» printzipioan oinarritutako ordainketa-sistema bat ezartzea zerbitzu publikoak finantzatzeko eredu iraunkor baten diseinua eta garapena lortzeko bide bihurtzen da.

Musika-irakaskuntzetan aplikatu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza aldatzeko proposamena.

«Bartolomé Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» Administrazio Erakunde Autonomoaren (aurrerantzean, «Bartolomé Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEA) Estatutuen 8.14 artikuluan xedatzen denez, Udalaren Osoko Bilkurari erakundearen prezio publikoak aldatzeko proposamena egitea Kontseilu Errektorearen eskumena da.

Aipatutako estatutuen 10.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, Gerentziak erakunde autonomoaren prezio-politika ezartzeko ardura duenez, «Bartolomé Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEAK ematen dituen musika-irakaskuntzen prezio publikoak aldatzeko Durangoko Udaleko Administrazio Erakunde Autonomoen Gerentziaren proposamenari buruzko justifikazio-memoria ekonomiko-finantzarioa osatu du. Memoria horren edukiera aztertuta, Kontseilu Errektoreak aurtengo apirilaren 17ko ohiko bilkuran prezioak aldatzeko proposamen hori onartzea erabaki du, ostean Osoko Bilkurak onar dezan.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APAPEL) 133.1 artikuluan (lehen tartekia) arabera, «Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da». Era berean, APAPEL-en 133.4 artikulua (lehen paragrafoa) honako hau ezartzen du: «Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazioaren izapideak egin gabe utzi daitezke Estatuko Administrazio Orokorren, administrazio autonomikoaren, toki-administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundearen aurrekontuei edo antolaketari buruzko arauetan edo hala justifikatzen duten interes publikoko arrazoi larriak daudenean».

Zerbitzuaren erabiltzaileei hobariak dakartzkien Auzitegi Gorenaren epai bat betetzeaz ari garenez eta gainera proposatutako prezio-aldaketak erakundearen finantza-jasangarritasunean eragin ekonomiko esanguratsua ez duenez, interes publikoko arrazoiengatik kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea alde batera uzteko aukera azter daiteke. Dena den, administrazio publikoen jarduna izan behar duen gardentasun-printzipioaren babesaren alde jokatzuz, Durangoko Udalak erabaki du herritarrei zuzendutako kontsulta, entzunaldi eta informazio publikoaren izapidea martxan jartzea, erakunde autonomoak onartutako prezio publikoaren aldaketa-proposamena Udalbatzak onartzeko aurkeztu aurretik.

Hau honela izanda, Durangoko Udalaren Udal Antolaketa, Funtzionamendu eta Gobernantzako Araudiaren 99. artikuluan xedatutakoa betez, herritarrek 15 egun natural izango dituzte, kontsulta-, entzunaldi- eta jendaurreko informazio-izapidearen epearen irekiera jakinarazten duen iragarkia argitaratzen den egunetik hasita, komenigarritzat jotzen dituzten iradokizunak, oharrak edo alegazioak aurkezteko.

Azaldutako guztiagatik, «Bartolomé Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEAK ematen dituen musika-irakaskuntzen prezio publikoak aldatzeko erakundeko Kontseilu Errektorearen proposamena, honela geratuko zen idatzita:

«G) «Bartolomé Ertzila Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» Administrazio-Erakunde Autonomoak emandako zerbitzu eta jarduerak

Musika-Eskola: 2024-2025 ikasturteko prezio publikoak

Eman beharreko ikasgaiak	PREZIOA (euro/hilero)
Musika eta Mugimendua (4 - 6 años)	23,61 €
Musika Hizkuntza	23,61 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna aurrekoa	45,15 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna	63,31 €
Musika Hizkuntza eta musika-tresna indartua	71,73 €
Informatika Musikala + musika-tresna	63,31 €
Konboa + musika-tresna	63,31 €
musika-tresna	41,05 €
musika-tresna (saio partekatua)	34,89 €
Musika-taldeak: Abesbatza, banda, orkestra, konboa, taldeko saioa...	7,18 €
Informatika Musikala / Ahots teknika / Perkusio Latindarra	23,61 €
Entzunaldi musikalak	18,47 €

Kontserbatorioa: 2024-2025 ikasturteko prezio publikoak

KONTSERBATORIOA_ Musika-ikasketa profesionalak	PREZIOA (euro/hilero)
1. eta 2. Kurtsoa (LOE)	136,78 €
3., 4.,5. eta 6. Kurtsoa (LOE)	160,50 €

Prezio publikoak aplikatzeko arauak

1. Dagokion prezio publikoaren kobratzeko era: Hamar (10) hileko kuotak.

2. Hobariak:

a) Familia unitateko diru-sarreraren arabera (taulan jasotakoak):

Bizikidetzaren unitateko kideak Miembros unidad familiar	<= LGS/SMI	<= 1,5 LGS/SMI	<= 2 LGS/SMI	<= 2,5 LGS/SMI	<= 3 LGS/SMI
1-2	%40	%20	%10	%0	%0
3	%50	%30	%20	%10	%0
4	%60	%40	%30	%20	%10
5 edo/0 >	%70	%50	%40	%30	%20

Hobariak lortu ahal izateko subjektu pasiboak urtero egin behar du eskaria, ondoko agiri hauek aurkeztuz:

- Eskatzailearen eta haren ondorengoen errenta aitortpena.
- Ondarearen gaineko zerga ordaintzen ez dela ziurtatzeko agiria, Foru Ogasunak emandakoa (zinpeko deklarazioak ere balioko du).

b) Familia bereko 2 kide edo gehiago musika eskolako ikasle izanez gero, familia-unitate horiek %50eko hobaria izango dute hileko kuotan.

c) Musika-tresna batean baino gehiagotan matrikulatzen diren ikasleei, matrikulazioko eta ikasleko ordainketa koefizientea aplikatuko zaie:

- Lehenengo musika-tresna: ehuneko ehun (%100).
- Bigarren musika-tresna: ehuneko hirurogeita hamabost (%75).
- Hirugarren musika-tresna: ehuneko berrogeita hamar (%50).

4. Bajak jakinarazteko epea.

Bajak Musika Eskola eta kontserbatorioko administrazio-langileei jakinarazi behar zaizkie ikasturtea amaitzen denetik dagokion urteko abuztuaren 31ra. Ezarritako epe hori gaindituz gero, iraileko hileko kuota kobratuko da. Urritik ikasturtea amaitu arte eskatzen diren bajen kasuan, dagokion hilabeteko 10. eguna baino lehen aurkeztu behar dira, eta epe honetatik kanpo eskatuko balira, eskaria egin den hilabeteko kuota ordainduko da.»

Durangon, 2024ko apirilaren 26a.

«Bartolomé Ertzilia Musika Eskola eta Kontserbatorio Profesionala» AEaren presidentea

Durango, 30 de abril de 2024

Elektronikoki izenpeturiko agiria
Documento firmado electrónicamente